



# KANPAINAREN OINARRIAK

## 2023KO AZAROKO SUPER LK FIDELIZAZIO-ZOZKETA

### 1.- ERAKUNDE ANTOLATZAILEA ETA SARIA

Caja Laboral Popular Coop. de Créditos —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, F-75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, Super LK segmentuko bezeroentzako fidelizazio-zozketa baten SUSTAPENA antolatu du. Saria: 2.000 € garbi.

### 2.- ZOZKETAREN ESPARRUA ETA DOAKOTASUNA

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da sustapena, eta doakoa eta borondatezkoa izango da. Hortaz, saria irabazteko, ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

### 3.- ZOZKETAREN HELBURUA ETA PROZEDURA

Sustapen bat (1) egingo da, eta honako hau izango da saria:

- 2.000 euro garbi sartuko dira irabazlearen kontuan.

Saria eskuratu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Super LK bezeroek hartuko dute parte zozketan, betiere 2023ko azaroaren 15etik abenduaren 8ra bitartean (biak barne) beren datuak ematen badituzte online edo Super LKren 900 555 900 telefonora deituta.
- Irabazleak, oparia jasotzeko eskubidea galdegin ahal izateko, egunean eta positiboan izan behar ditu entitatearekin kontrataturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Behin soilik har daiteke parte pertsona fisiko gisa.

Sustapenean parte hartzeak berekin dakar partekatutako edukien gaineko jabetza intelektuala eta irudi-eskubideak lagatzea. Hori horrela, bidalitako partaidetzaren ondorioz dagozkion ustiapen-eskubide intelektualak, industrialak eta/edo irudikoak laga behar dizkio parte-hartzaileak LABORAL Kutxari.

### 4.- IRAUPENA ETA EREMUA

Jarduera Espainiako lurraldean gauzatuko da.

Sustapenean parte hartzeko epea 2023ko azaroaren 15ean hasi eta 2023ko abenduaren 8an amaituko da. Zozketa 2023ko abenduaren 11n egingo da.

### 5.- PARTE-HARTZAILEAK

Honako hauek hartu ahal izango dute parte sustapenean:

- 2023ko azaroaren 15etik abenduaren 8ra bitartean (biak barne) beren datuak online edo 900 555 900 telefonora deituta ematen dituzten Super LK bezeroek.

Honako hauek ezingo dute parte hartu zozketan:

- LABORAL Kutxako langileek, ezta taldeko, partaidetzapeko eta antzeko sozietatekoek eta kanpainarekin zuzeneko zerikusia duten pertsonak ere.

LABORAL Kutxako bezeroek ez dute partaidetzarik eskuratzeko edo saria irabazteko eskubiderik izango, baldin eta:

- LABORAL Kutxaren aurrean berankortasun-egoeran edo beste edozein egoera irregularretan badaude zozketa indarrean dagoen bitartean, zozketa egiten den egunean edo saria emateko unean.
- LABORAL Kutxaren iritziz iruzurrez jokatzeko badute zozketan.



## 6.- IRABAZLEA/IRABAZLEAK ETA ORDEZKOAK AUKERATZEA ETA SARIA JAKINARAZTEA ETA EMATEA

3. atalean zehaztutako sariaren zozketa 2023ko abenduaren 11n egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez. Bidezko arrazoiren batengatik egun horretan ezin bada zozketa egin, hurrengo egun baliodunean egingo da.

Saria onartzen duen ala ez jakinarazi beharko dio saridunak LABORAL Kutxari, telefonoz, posta elektronikoz edo bulego batean sinatutako hartu-agiriaren bidez, saria argitaratzen edo jakinarazten den datatik gehienez egun natural bateko (1) epean.

Parte-hartzaileak sariari uko egiten badio edo berarekin harremanetan jartzerik ez badago, ez du ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Bezero saridunak sariari uko egiten badio, berarekin harremanetan jartzerik ez badago edo lehenago azaldutako baimena ematen ez badu, saria ordezkoen zerrendako lehen postuan dagoenari esleituko zaio, zozketan parte hartzeko ordena errespetatuz. Saridunak ezingo du sari horren ordezkoez beste bat eskatu.

Sariduna saria jaso aurretik hil bada, horretarako berariaz aukeratutako ordezkoari emango zaio.

## 7.- SARIAREN ZERGA-SISTEMA

Zozketa honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZren inguruko zerga-araudian aurreikusitakoa. Sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipenari dagokion zenbatekoa LABORAL Kutxak ordainduko du.

Era berean, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu Zerga Administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

## 8.- IRUZKINAK EDO IRITZIAK ARGITARATZEA

Ez da onartuko iruzkin edo iritzirik, horien edukia desegokitzen jotzen bada, iraingarriak, laidogarriak edo diskriminatzaileak badira, edo hirugarrenen eskubideak urratzen badira. Era berean, ez da onartuko partikular baten aurkako iruzkinik, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen printzipioak urratzen baditu. Ez dugu gure gain hartuko inolako erantzukizunik parte-hartzaileek zozketan egiten dituzten iruzkinak eragindako kalteen ondorioz, nahiz eta horiek beste parte-hartzaile batzuen sentsibilitatea mindu.

## 9.- ERRESERBAK ETA MUGAK

Iruzurra egin dela ulertuko da kasu hauetan, baina ez horietan bakarrik: webgunearekin zerikusirik ez duten aplikazioen balizko erabilera detektatzen bada, zerbitzariari gehiegizko kontsulta-kopurua egiten bazaio eta itxuraz gehiegizkoak edo asmo txarrekoak diren portaerak antzematen badira.

Sustapenean zehar aipatutako egoeraren bat egiaztatzen bada, parte-hartzailea sustapenetik kanpo geratuko da automatikoki, eta saria eman bazaio, galdu egingo du.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, baldin eta saridunek emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik saria ematean edo hori erabiltzean gertatzen diren gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arrazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gertatzen diren atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere.

Pertsonaren batek sustapenaren manipulaziotzat edo faltsifikaziotzat har litekeen edozein egintza egiten badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren aurka ekintza judizialak abiarazteko.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik sustapenean parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi baterako erabiltzerik ez egoteagatik edo haien funtzionamendua eteteagatik, erabiltzaileek iruzurrez erabiltzeagatik eta, bereziki baina ez eskusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean gerta litezkeen akatsengatik gertatzen diren kalte-galeren ondorioz.



## KANPAINAREN OINARRIAK 2023KO AZAROKO SUPER LK FIDELIZAZIO-ZOZKETA

LABORAL Kutxak eskubidea izango du sustapenaren xede onerako aldaketak egiteko, horretarako bidezko arrazoiak daudenean edo sustapena oinarri hauetan jasotzen den moduan burutzea galarazten duten ezinbesteko arrazoiak daudenean.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du sustapenaren iraunaldia luzatzeko edo geroratzeko, baita oinarri hauek interpretatzeko ere.

Halaber, enpresa antolatzaileak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik aipatutako kasuetako bat gertatzen bada edo saria baliatzean gertatzen diren kalte-galeren ondorioz.

### 10.- DATUEN BABESA

Zure datuen tratamenduaz arduratzen den enpresa LABORAL Kutxa da (IFZ: F-75076935; egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa).

Parte-hartzaileak lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da badakiela LABORAL Kutxak bere datu pertsonalak tratatuko dituela, zozketan parte hartzea tramitzatzeko eta, irabazlea izanez gero, sariaren berri emateko, baita saridunaren izena eta/edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko ere, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (hala nola, adibide gisa baina inolako mugarik gabe, prentsaren, irratia, telebista, Interneten eta abarren bidez), datu pertsonalak tratatzeko pertsona fisikoak babesteari eta datuen zirkulazio libreaki buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Arautegian (EB) eta datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Aipatutako jarduera horiek ez dute ordainik edo onurarik jasotzeko inolako eskubiderik emango.

Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango dituzu, zure nortasuna egiaztatuz (NANaren edo horren pareko agiri baten bidez) eta [protecciondatos@laboralkutxa.com](mailto:protecciondatos@laboralkutxa.com) helbide elektronikora idatziz, edo, bestela, ohiko postaren bidez honako helbide honetara joz: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa.

Bezeroen Datu Pertsonalak Babesteko Politika osoa hemen irakur dezakezu:  
<https://www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa>.

### 11.- OINARRIAK ONARTZEA

Sustapenean parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo batzuk ez dituela onartzen, sustapenetik kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa bete beharko. Oinarri hauek [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) webgunean kontsulta daitezke.

### 12.- LEGERIA APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sortzen diren erreklamazioak edo ezadostasunak ebazteko.